



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº expediente:** 2024IGOB0005

**Gaia/Asunto:** 2024/03/13 Tokiko Gobernu Ezhoiko Batzarra/Junta de Gobierno Local extraordinaria de fecha 13/03/2024

**Tokiko Gobernu Batzarra 2024ko martxoaren 13an eginiko ezohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2024ko martxoaren 13ko 14:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

### **ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU**

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna

### **ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Eñaut Gracia Ibarra (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia idazkari orokorra.

**Puntu bakarra: AGUSTINAK KSI gunerako, Errenteriako Udala eta Oarsoaldea Garapen Agentzia S.A.ren arteko kooperazio hitzarmena onartzea. (2024ZHIT0002)**

**Acta de la sesión extraordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 13 de marzo de 2024.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 14:00 horas del día 13 de marzo de 2024, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), las siguientes concejales y concejales:

### **ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU**

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna

### **ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

No asiste excusando su inasistencia, Eñaut Gracia Ibarra (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU).

Asiste y da fe del Acto la secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

**Punto único: Aprobación del Convenio de cooperación entre el Ayuntamiento de Errenteria y la Agencia de Desarrollo Oarsoaldea S.A. para el centro ICC AGUSTINAK. (2024ZHIT0002)**



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Errenteriako Udalaren helburua da, besteak beste, udalerrriaren garapen sozioekonomikoa bultzatzea, eta, zehazki, beste arlo batzuen artean, enplegua bultzatzea, jarduera ekonomiko berriak sortzea eta lehendik daudenak babestea. Horretarako, beste ekimen batzuen artean, Oarsoaldea Garapen Agentziaren parte da, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udalekin batera, udalerrien tresna gisa aipatutako helburuetarako.

Errenteriako Udalak, 2025erako udal- eta eskualdeplan estrategikoen baitan, Errenterian aurrera atera nahi du sormenaren industriara bideraturiko poloa, bereziki, *AGUSTINAK* eraikinaz baliatuz.

Polo honek ekimen ekonomiko berriak aurrera ateratzeko prozesua bideratzen lagunduko du eta lehendik daudenak aurrera ateratzea, ekimen hauek bat etorriko direlarik Planetan zehazten diren herriko eta eskualdeko potentzialtasunarekin. Honetaz aparte, ekintzaileei eta enpresei espazio bat eskainiko die, non bere jarduera ekonomikoa hasi, aurrera egin eta finkatuko den, gainera, erabilerari dagozkion berezko zerbitzuak, eta honez gain, konpartituko instalazio eta ekipoak izango dituzten eskuragarri.

Errenteriako Udalak uste du OARSOALDEA Garapen Agentzia tresna egokia dela proiektu hori kudeatzeko, eta haren helburu nagusia izango dela ekintzailtza-proiektuak abian jartzeko eta KSlen diziplinen eremuan dauden enpresei laguntzeko baliabideak eskaintzea, eta, horretan oinarrituta, hitzarmen hau formalizatu dute.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, hitzarmena sinatu ahal izango dute, 49. artikuluan ezarritako gutxienezko edukia barne.

El Ayuntamiento de Errenteria tiene como objetivo, entre otros, impulsar el desarrollo socio-económico del municipio y, en concreto, entre otros ámbitos, apoyar el empleo, la creación de nuevas actividades económicas y el apoyo de las ya existentes. Para ello, entre otras iniciativas, forma parte de la Agencia de Desarrollo Oarsoaldea, conjuntamente con los ayuntamientos de Lezo, Pasaia y Oiartzun, como herramienta de los municipios para los mencionados fines.

El Ayuntamiento de Errenteria, dentro de los planes estratégicos municipal y comarcal 2025. quiere llevar a cabo la creación de un polo de industrias creativas en Errenteria, y en concreto, en el edificio *AGUSTINAK*.

Este polo facilitará el proceso de lanzar nuevas iniciativas económicas y apoyar a las ya existentes acordes con las potencialidades del municipio y de la comarca definidas en los Planes Además, ofrecerá, a las personas emprendedoras y las empresa del sector un espacio donde iniciar, avanzar y consolidar su actividad económica y donde se proporcionará una serie de servicios propios para ello. Además de la posibilidad de disponer de equipos e instalaciones compartidas.

El Ayuntamiento de Errenteria entiende que la Agencia de Desarrollo OARSOALDEA es la herramienta adecuada para la gestión de este proyecto, cuyo objetivo esencial será el de propiciar dispositivos de apoyo a la puesta en marcha de proyectos de emprendimiento y a las empresas en la órbita de las disciplinas de las ICCs y, en base a ello, se realiza el presente convenio.

De acuerdo con la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán suscribir convenio debiendo incluir el contenido mínimo establecido en



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Besteak beste, hitzarmenak administrazio publiko sinatzaileen jardueraren oinarri den eskumena adierazi beharko du.

Hori dela eta, hitzarmen honi dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluekin bat etorriz, Errenteriako Udalak berezko eskumena du garapen ekonomikoaren eta politika edo tokiko enplegu-planen arloan.

Aipatu 2/2016 Legearen 100. artikuluan xedatutakoaren arabera, tokiko erakundeek kudeaketa publikorik eraginkorrenerako eta administrazio-bikoizketak saihestu edo deuseztatzeko elkarren artean edo gainerako administrazioekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ditzakete.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuak buruzkoak, 6.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eremutik salbuetsiak geldituko dira tokiko erakundeek sinatzen dituzten hitzarmenak, betiere edukia lege honek ala administrazio-arau bereziek araututako kontratuen barruan ez badago. Hitzarmen honen edukia ez da obra, hornidura edo zerbitzuen kontratuaren berezkoa, ezta lege-testu horretan arautua dagoen gainerako kontratuena ere.

Ikusirik proposamen honekin batera doan hitzarmenaren zirriborroa, I. eranskina.

Ogasun eta Garapen Ekonomikoko Teknikaria aldeko txostena eman du 2024ko martxoaren 6ean.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

\* Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.

su artículo 49. Entre otros, el convenio deberá indicar la competencia que fundamenta la actuación de las administraciones públicas firmantes.

En atención a ello, y respecto al presente convenio, el Ayuntamiento de Errenteria, de conformidad con el artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, cuenta con competencias propias en materia de desarrollo económico y políticas o planes locales de empleo.

El artículo 100 de la citada Ley 2/2016 establece que las entidades locales podrán celebrar convenios de cooperación, entre sí o con el resto de administraciones, para la más eficiente gestión pública y con la finalidad de evitar o eliminar duplicidades administrativas.

El artículo 6.2. de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, establece que quedan excluidos del ámbito de la misma los convenios que suscriban las entidades locales, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esa ley o en normas administrativas especiales. El contenido de este convenio no es propio de un contrato de obras, suministros, servicios y demás contratos regulados en dicho texto legal.

Visto el borrador de convenio adjunto a la presente propuesta como Anexo I.

Visto el informe del Técnico de Hacienda y Desarrollo Económico con fecha 6 de marzo de 2024.

### LEGISLACIÓN APLICABLE

\* Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

\* Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

\* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.

\* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

Alkateak egindako erabaki-proposamena, eta Kontratazio eta Ondareko aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

### ERABAKI DU

1.- Kooperazio hitzarmena onartzea, Errenteriako Udalaren eta OARSOALDEA S.A.-ren artekoa, AGUSTINAK KSI guneari buruzkoa.

2.- Errenteriako alkateari, Aizpea Otaegi andreari, ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko edota bestelako dokumentuak formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko.

3.- Hitzarmena udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

4.- Ebazpen honen berri Udalbatzara ematea ohiko osoko bilkuran".

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidentek bilkura amaitutzat eman du egun bereko 14:10 zirela. Eta aztertutakoa eta

\* Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

\* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

\* Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local

Vista la propuesta de acuerdo de la alcaldesa y la conformidad dada por la asesora jurídica de Contratación y Patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ACUERDA

1.- Aprobar el Convenio de cooperación entre el Ayuntamiento de Errenteria y OARSOALDEA S.A., relativo al centro ICC AGUSTINAK.

2.- Facultar a la Alcaldesa de Errenteria, Sra. Aizpea Otaegi, para la firma del Convenio citado así como cualquier otro documento que se haga necesario formalizar.

3.- Publicar el Convenio en el portal de transparencia del Ayuntamiento.

4.- Notificar la presente Resolución al Pleno en sesión ordinaria".

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 14:10 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut.  
Idazkari orokorrak.

acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La  
secretaria general.

Errenteria, 2024ko martxoaren 13a

Errenteria, 13 de marzo de 2024

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia



EKS | CSV: **ESKU5f3cd8bf-6ed4-4ad2-8bf4-97422b162104**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGOB0005-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)